

HAUR HEZKUNTZA INKLUSIBOA II JARDUNALDIAK PARTAIDETZA ETA IKASKETAK

2013ko apirilaren 16 eta 23an bigarren jardunaldiak egin ditu ADARRAK Bilbon. Jardunaldien bigarren atal honetan, 80 lagun inguru elkartu gara 2012ko urrian hasitako jardunaldiak burutzeko asmoz. La Bolsa deituriko egoitzaren ganbaran, eremu desberdinetako lankideak (0-3 eta 3-6 zikloetako irakasleak, LHkoak, unibertsitateko ikasle zein irakasle, teknikariak, gurasoak eta abar) bildu gara Haur Hezkuntza etaparen garrantzia azpimarratzeko.



Apirilak 16ko arratsaldean **Poli Vicente eta Elena Labalde** udal teknikariak lehenengo hitzaldia eman zuten. Haiek Haur Hezkuntzako irakasleak dira baina orain Gasteizko Udaletxean egiten dute lan eta Magalean proiektuaren ezaugarriak aurkeztu zizkiguten. Gasteizko udaletxeko haur eskolak 1979. urtean hasi ziren; gaur egun gehienak Haurreskolak Partzuergora transferituta daude eta azken urteetan Udalak eskaintza bat diseinatu du gurasoei laguntzeko 3 urte baino gutxiago duten

umeen heziketan. Eskolara ez doazen ume eta gurasoentzako hezkuntza zerbitzua da.

Gasteizko esperientzia eta gero, **Marta Soler** unibertsitate irakaslearen irakurketari buruzko hitzaldia entzun genuen. Marta zenbait ikerketan inplikaturita dago eta emaitzak hobetzen dituzten jarduerak azaldu zituen oso hitzaldi sakon batetan. Erreferentzi teorikoak eman zizkigun (adibidez, Brunerren formatoak, Vygotskyren interakzioak, Wellsen indagazioa...), atzerrian egiten diren esperientziak aurkeztu zituen (adibidez “Success for all” ikastetxeak non egunero Haur Hezkuntzatik DBH arte egunero irakurtzeko denbora jarrita daukate) eta hausnarketarako gaiak zabaldu zituen (adibidez testuinguru aberatsen beharra haur eskoletan, maiuskulen erabilera eta abar).



Apirilak 23an hiru hitzaldi eman zituzten eremu desberdinetako irakasleek. Lehenengoan,



M^a José Intxaustik familiekiko elkarriketei buruz hitz egin zuen. Gasteizko EHUko irakasle honek oso landuta dauka senideekiko bileren gaia eta oso aurkezpen interesagarria egin zuen. Bere iritziz, HH etapa egoera ahul batetan dago eta beharrezkoa da eguneroko praktikatik abiatuta, hezkuntza teoria osotzea. Elkarriketei buruz esan zuen asko eskatzen duen jarduera dela, irakasleak asko inplikatzeko direla honelako egoeretan eta afektuak pil-pilean daudela. Gainera, amaieran, azaldu zuen gurasoek

beharra dutela testuinguru berezi batetan (ez kalean, ez edonorekin) haien hezitzaile ardurari buruz hitz egiteko. Aditu honen tesia doanik aurki daiteke ondorengo helbidean:

<http://hdl.handle.net/10810/7347>

Bigarren hitzaldian, **Nekane Otsoa** aritu zen eta Arrankudiagako eskolan egindako lana aurkeztu zuen. Esan zuen modu asko daudela proiektuak egiteko, beti umeen interes eta gogoetatik sortzen direla eta “gela polifoniko” batetan garatzen direla. Gaia argi aurkeztuta, proiektu zehatz baten dokumentazioa aurkeztu zigun. Bertan planetei buruzko eztabaida eta gero, kohete bat egiteko proposamena sortu zen eta hor inplikatu ziren ume guztiak. Haur Hezkuntzako ikasle guztien ideiak, proposamenak kontuan izanda, arazoei konponbideak bilatuta eta eskolako zenbait pertsonen laguntzari ezker, amaieran kohete handi bat egin zuten eta inauterietako desfilean herritik erakutsi zuten.



Hirugarren hitzaldian, Deustu LHko irakaslea den **Marta Zurimendi** eta Lekeitioko institutuko ikasleak diren **Eneritz Goigana eta Jokin Akarregi** aritu ziren (**Xabier Iturbe** LHko zuzendariak



lagunduta). Martak argitu zuen matematika memento askotan lantzen direla baina berak talde elkarreragiletan kokatuko zela. Argazki askoz baliatuta, matematikako edukiak lantzeko erabiltzen duten proposamena azaldu zigun. Bere gelan, boluntarioen partaidetzari esker emaitzak hobetu dira. DBHko laugarren mailako ikasleen aurkezpena oso argia izan zen. Haien institutuan aukera daukate ordutegi barruan nagusien egoitzara ala 5 urteko gelara joateko eta guztiz murgilduta daude

esperientzi honetan. Nola prestatu, nola egin, nola ebaluatzen duten kontatu ziguten. Horrez gain, haien bizipenak bai haurrekin bai irakasleekin eta haien ikuspuntuak DBHko ikasle eta “txikien irakasle” bezala. Berezi eskertzekoa da egin zuten esfortzua. Benetan gustura txalotu genituen aurkezpenaren amaieran.

Jornadas EDUCACIÓN INFANTIL INCLUSIVA II. PARTICIPACIÓN Y APRENDIZAJE

Los días 16 y 23 de abril de 2013 se han celebrado las segundas jornadas de este curso organizadas por ADARRA en Bilbao.

El 16 de abril, a partir de las 17:30, las profesoras y técnicas del Ayuntamiento de Vitoria-



Gasteiz **Poli Vicente y Elena Labalde** presentaron el servicio Magalean, una oferta educativa para familiares con hijos o hijas menores de 3 años que no están escolarizados. Hablaron desde su experiencia práctica, nos mostraron fotografías de algunas sesiones y expusieron tanto los proyectos como las actuales dificultades económicas. Esta charla sirvió para enlazar con la conferencia de octubre en la que Vicenç Arnaiz nos mostró los servicios de atención a las familias que funcionan en Menorca.

En la segunda parte de este primer día, la profesora catalana **Marta Soler** impartió su conferencia sobre lectura dialógica. Adaró que el término “dialógica” se refiere a la importancia de las interacciones (o diálogos) entre lectores (de cualquier edad) en relación a los textos. Subrayó la importancia de fomentar innovaciones basadas en evidencias y también el valor de impulsar contextos de lectura desde Educación Infantil. Desarrolló los siguientes fundamentos del aprendizaje dialógico de la lectura: Inteligencia cultural, diálogo igualitario, dimensión instrumental y solidaridad, transformación y creación de sentido y lectura crítica.



Durante la segunda tarde de estas jornadas se impartieron tres charlas. En la primera charla, la profesora universitaria **M^a José Intxausti** realizó una interesante síntesis sobre las reuniones y las entrevistas con las familias. Habló de la estructura de las entrevistas (preparar, realizar, registrar), de los aspectos específicos de las reuniones con familiares de Educación Infantil y subrayó la importancia de cuidar las condiciones para las entrevistas y de la confidencialidad. Ella tiene publicada una tesis doctoral sobre este tema que está disponible en el repositorio siguiente : <http://hdl.handle.net/10810/7347>



En la segunda charla, **Nekane Otsoa** (directora de la escuela de Arrankudiaga) nos mostró su trabajo en tomo a aprender por proyectos, es decir, convertir en un proyecto los deseos infantiles de comprender el mundo. Las niñas y niños formulan preguntas y definen lo que quieren saber. A partir de ahí, en un contexto de intercambio de ideas, de diálogo y respuesta a la diversidad, se buscan respuestas y se recopila lo aprendido. Nos mostró imágenes con numerosas producciones infantiles a partir del proyecto sobre astronautas.

La tercera charla la impartieron **Marta Zurimendi** (profesora de la escuela de Deusto) y los alumnos del IES Lekeitio **Eneritz Goigana y Jokin Akarregi**. Marta se centró en los grupos



interactivos para aprender matemáticas, desglosó los contenidos y mostró numerosas imágenes tomadas en las aulas de infantil (5 años). El alumnado de 4º de ESO, con ayuda de **Xabier Iturbe** (director de la escuela de Lekeitio), expuso su experiencia y sus vivencias en las aulas de 5 años. La escuela y el instituto de Lekeitio tienen establecidas unas sesiones semanales (las correspondientes a “alternativa a la religión”) en las que chicas y chicos adolescentes, en colaboración con la tutora del grupo, ayudan en grupos establecidos.

Tenemos que agradecer a Eneritz y a Jokin el esfuerzo extra que supone hablar delante de casi 80 profesionales de la enseñanza. Expusieron sus vivencias como alumnado y como “enseñantes de infantil” y lo hicieron con gran claridad y simpatía.

Todas las ideas y experiencias expuestas nos han servido para reflexionar sobre los aprendizajes, sobre la participación de familiares y otros agentes, para conocer algunas publicaciones y para intercambiar experiencias. Además, por medio de las experiencias, hemos podido acercarnos a realidades tanto del primer ciclo como del segundo, lo que es enriquecedor para todas las personas participantes en las jornadas.

En las carpetas que se repartieron en estas segundas jornadas, se incluían los siguientes materiales:

- Listado con libros en los que han colaborado Marta Soler, Nekane Otsoa y la tesis de M.J. Intxausti.
- Artículo “Lectura dialógica en la primera infancia” (Graó, 2001)
- Artículo “Adolescentes que enseñan en infantil” (Cuadernos de pedagogía, 2011)
- Artículo “Grupos interactivos sobre matemáticas en infantil” (Escuela, 2013)

Si queréis solicitar el material o completar alguna de las referencias citadas, escribid un mensaje a adarraerakundea@gmail.com Además, os recordamos que en la página web y en facebook informaremos de nuevas convocatorias.

